

UEMAren ZERBITZUEN KATALOGOa



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

AURKIBIDEA:

SARRERA	4
1. UDALA ETA UDALERRIA EUSKALDUNTZEKO ZERBITZUAK	5
1.1. Udala euskalduntzeko zerbitzuak	6
1.2. Udalerria euskalduntzeko zerbitzuak	7
1.2.1. Udalerrirako planak	7
1.2.2. Merkataritza eta ostalaritza	8
1.2.3. Transmisioa	9
1.2.3.1. Material banaketa	9
1.2.3.2. Ispiluari begira	10
1.2.4. Biztanle berrien harrera	11
1.2.5. Euskalduntze alfabetatzea	13
1.2.6. Errenta aitortpena	14
1.2.7. Abizenak euskaldundu	15
1.2.8. Osasungintza eta epaitegiak	16
1.2.9. Finantza erakundeak	17
2. Euskal hiztunak ahalduntzeko zerbitzuak	18
2.1. Formazio eskaintza	18
2.1.1. Erakusketa ibiltaria	19
2.1.2. Arnasguneei eta udalerrri euskaldunei buruzko hitzaldia	20
2.1.3. Arnasguneei buruzko tailerrak	21
2.1.4. Motibazio tailerra	22
2.1.5. Euskara ez dakitenentzako tailerra	23

2.2. Hezkuntza proiektua	24
2.2.1. Haur Hezkuntza	25
2.2.2. Lehen Hezkuntza	29
2.2.2.1. LH4	
2.2.2.2. LH6	
2.2.3. Bigarren Hezkuntza	30
2.2.3.1. DBH3	
2.2.3.2. DBH4	
2.2.4. Batxilergorako tailerrak	31
2.2.5. Bagoaz tailerra	32
2.2.6. Bixitailerra	33
2.2.7. Haur eta gurasoen tailerra	34
2.3. Gizarte eragileak ahalduntzeko egitasmoa	36
2.4. Euskaraldia	38
3. UDALERRIEN ZAINZARAKO ZERBITZUAK	39
3.1. Eragin linguistikoaren ebaluazioa	40
3.2. Turismoa	41
3.3. Kale erabilera neurketak	42
4. BESTELAKO ZERBITZUAK	43

SARRERA

UEMAk, eragile politikoa izateaz gain, mankomunitateko kide diren udalei euskara zerbitzua ere eskaintzen die. Horren baitan, administrazioa euskalduntzeko zerbitzuak, udalerrak euskalduntzekoak, erabilera sustatzekoak eta herritarrek ahalduentzeko zerbitzuak ere eskaintzen ditu.

Udalerrak euskaldunen eta arnaguneen bilakaera gertu-gertutik jarraitzen du UEMAk, eta horren arabera egi-tasmoak diseinatu eta sustatzen ditu udalerrietan.

Zerbitzu horiek hiru ildo estrategikoren baitan kokatzen dira:

- Udalerran euskaraz bizitzeko hutsuneak gaitzitzea eta erabilera sustatzea.
- Euskal hiztun komunitatearen ahalduentzea.
- Udalerrak euskaldunen eta arnaguneen zaitza eta garapena.



1. UDALA eta UDALERRIA EUSKALDUNTZEKO ZERBITZUAK

1.1. UDALA EUSKALDUNTZEKO ZERBITZUAK: ERABILERA PLANAK, TEKNIKARIEN ETA HAUTETSIEN FORMAZIOA, AGIRI EREDUAK, HIZKUNTZA IRIZPIDEAK...

ZERBITZUA: udalaren erabilera planaren diseinua, jarraipena eta plana betearazteko laguntza teknikoa.

HARTZAILEAK: udal langileak eta ordezkari politikoak.

HELBURUA: udalaren lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza euskara izatea.

BITARTEKOAK: planak, dokumentu ereduak, trebakuntza fitxak, hizkuntza irizpideak eta abar.



UEMArentzat oso garrantzitsua da udala eredugarri izatea euskararen normalizazio prozesuan. Horregatik udal bat UEMAn sartzen denetik, UEMAk bere gain hartzen du udal horren egoeraren diagnostika egitea, plana diseinatzea eta plan horren jarraipena egitea (Bai Nafarroan bai EAEn, EAeko plangintzaldi bakoitzaren hasieran diseinatzen dira planak).

Horrez gain, planen jarraipena egiten da, eta UEMAk hainbat zerbitzu eskaintzen ditu plan horietan jarritako helburuak betetzeko:

- Hautetsientzat formazio eta sentsibilizazio saioak.
- Langileentzat sentsibilizazio saioak.
- Trebakuntza: zuzeneko eta online.
- Dokumentuen estandaritzazioa.
- Hizkuntza paisaia zaintzeko baliabideak: oharra, egutegia...
- Hornitzaileen lanketa.
- Kontratazio irizpideen inguruko aholkularitza.
- Aholkularitza juridikoa.

Euskara zerbitzurik ez dagoen udaletan, UEMAk osotasunean hartzen du planak diseinatzeko eta jarraipena egiteko ardura. Gainerako udaletan, berriz, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean egiten da.

1.2. UDALERRIA EUSKALDUNTZEKO ZERBITZUAK: MERKATARITZA, OSTALARITZA, OSASUNGINTZA, ETORRI BERRIAK, ALFABETATZEA...

1.2.1. UDALERRIRAKO PLANAK

ZERBITZUA: **PLANEN DISEINUA, AHOIKULARITZA
ETA EBALUAZIOA.**

HARTZAILEAK: **UEMAKO KIDE DIREN UDALAK.**

HELBURUA: **UDALERRIAN EUSKARAREN
NORMALIZAZIO URRATSAK EMATEKO PLAN
OROKORRAK DISEINATUTA IZATEA.**

BITARTEKOAK: **DIAGNOSTIKOAK
ETA PLANEN EUSKARRIAK.**



UEMAk, bertako kide diren udalerrri guztietan, egoeraren diagnostikoa egiten du, eta unean-unean dagozkion eguneraketak egiten zaizkio. Errealitate horren arabera, ondoren, udalerrira begirako plangintza egiten da.

Plangintza horiek, udalerrriaren arabera, euskalgintzarekin, udalaren euskara zerbitzuarekin edo dago-kionarekin batera diseinatzeko dira.

Udalerrri txikienei, EAEn, ESEPen diseinua egiten die UEMAK. EAEn zein Nafarroan, dirulaguntzak ere UEMAK tramitatzen ditu. Udalerrri handiagoei, berriz, laguntzak eskatzeko eta kudeatzeko egitekoetan laguntza ematen die.



Udalerrri berri bat UEMAn sartzen denean, merkataritza bira egiten da, eta herriko dendari eta ostalariei eskaintzen zaie hizkuntza paisaia euskalduntzeko aukera. Horretarako, ordutegi ereduak, menuen itzulpenak, informazio-txartelak, fakturak eta abar eskaintzen zaizkie. UEMak txosten bat egiten du udalerriko merkataritza zerbitzuen datuekin.

Behin bira eginda, udalaren eta UEMaren artean adosten da bisitak egiteko maiztasuna.

- Karteltxoak.
- Errotuluak.
- Ordainagiri / faktura takoak.
- Arlokako hiztegiak.
- Itzulpen-lan laburrak (menuak, karteltxoak...) eta euskara zuzenketak.
- Merkealdietarako materiala (merkealdiko tirak eta orain/lehen txarteltxoak).

Urtean bi kanpaina egiten dira:

- Ekainean, merkealdi kanpaina eta udako kanpaina. Merkealdirako materiala eta hizkuntza paisaia euskalduntzeko bitarteko guztiak eskaintzen zaizkie merkatariei eta ostalariei.

- Kanpaina orokorra. Abenduaren amaieran egiten da, eta zerbitzua gogorarazteko gutunak bidaltzen zaizkie. Horrekin batera jasotzen dute egutegi bat, zerbitzua erabiltzeko helbide eta telefonoekin.

Udalerriren batean saltoki berri bat irekitzen denean, zerbitzua zuzenean aurkezteko bisitak egiten dira.

1.2.2. MERKATARITZA eta OSTALARITZA

ZERBITZUA: MERKATARIEK eta OSTALARIEK OHIKOAK DITUZTEN BITARTEKOAK EUSKARAZ eskaintzea.

HARTZAILEAK: MERKATARIAK eta OSTALARIAK.
HELBURUA: HIZKUNTZA paisaia euskalduntzea.

BITARTEKOAK: KARTELAK, ERROTULUAK, ORDAINAGIRIAK eta FAKTURAK, ARLOKAKO HIZTEGIAK, ITZULPEN LABURRAK, MERKEALDIETARAKO MATERIALA, eta ABAR.



1.2.3. TRANSMISIOA

1.2.3.1. MATERIAL BANAKETA

ZERBITZUA: GURASOAK KONTZIENTZIATZEKO GUTUNA.

HARTZAILEAK: HAUR JAIO BERRIEN GURASOAK.

HELBURUA: GURASOEI HIZKUNTZAREN TRANSMISIOAREN GARRANTZIA IKUSARAZTEA.

BITARTEKOAK: GUTUNA ETA AUTORAKO PEGATINA.

Guraso eta seme-alaben arteko hizkuntza transmisioaren garrantzia ikusarazteko, jaio berriaren gurasoei gutun bat bidaltzen zaie, haurra jaiotzen den unetik euskararen garrantzia nabarmenduz, eta pegatina bat ere ematen zaie autorako: *Kontuz, haurrak!*

1.2.3.2. ISPILUARI BEGIRA
ZERBITZUA: HAURREN ETA GURASOEN TAILERRA.
HARTZAILEAK: 6 eta 11 URTE BITARTEKO
HAURRAK, eta HAUEN GURASOAK.
HELBURUA: HAURREK eta GURASOEK
ELKARREKIN HAUSNARTZEA HIZKUNTZA
OHITUREI BURUZ, ALDAKETAN ERAGITEKO.
IRAUPENA: 2 ORDU.



METODOLOGIA:

Ariketa praktikoak zein teoria partekatuko ditugu. Teoria, batik bat, gurasoentzat azalduko dugu. Horrez gain, bideoak eta abestiak erabiliko ditugu. UEMAko bi teknikarik egingo dituzte dinamizatzaile lanak.

Lehen ordubetean gurasoak eta haurrak bananduta egongo dira bi taldetan. Bigarren zatian, guztiak batera egongo dira.

Gurasoekin teorikoa izango da tailerra. Erakusketako edukiak erabilia, honako gaiak landuko ditugu:

- Arnasguneak.
- Herri euskaldunen zein erdaldunen garapen soziolinguistikoa.
- Arnasguneetan hizkuntzaren gorabeherak aztertze gakoak.
- Dagokion herriko datuak eta haien irakurketa.
- Hausnarketa norbere hizkuntz hautuez.

Haurrekin praktikoa izango da tailerra: hiru txokotan banatuko dugu lekua (etxea, parkea/jolastokia eta eskola). Txoko bakoitzari mural bat jarriko diogu, eta hiru taldetan banatuko ditugu umeak.

Gure helburua izango da umeek azaltzea gunen bakoitzean zer hizkuntza entzuten eta erabiltzen duten. Horretarako, gunen bakoitzean ariketa bana egin beharko dute. 20 minutu pasatuko dituzte txoko bakoitzean.

Bigarren zatian, gurasoak soziolinguistika tailerrean azalduko kontzeptuen jabe izango dira, eta umeek azaldu egingo dizkiete zer ondorio atera dituzte txokoz txoko egin dituzten ariketetan.

Euskararen alde pauso bat aurrera egiteko egin dezaketenaz hausnartzeko eskatu zaie taldeka jarrita. Taldeetan haurrak beraien gurasoekin jarriko ditugu.

Bukaeran egoera bat aukeratuta, antzerkitxo bat egiteko eskatuko diegu, beti ere euskararen aldeko pauso bat irudikatuz.

1.2.4. BIZTANLE BERRIEN HARRERA
ZERBITZUA: BIZTANLE BERRIEN HARRERA.
HARTZAILEAK: BIZTANLE BERRIAK.
HELBURUAK: BATETIK, GURE HERRIETARA
DATOZEN ERDALDUNAK, EUSKARA BEREGANATUZ,
HERRIAN INTEGRATZEA; BESTETIK, DATOZEN
EUSKALDUNAK HERRIAN EUSKARAZ INTEGRATZEA.
BITARTEKOAK: eskuorriak, bideoa eta
HAINBAT FORMAZIO SAIO.



Herri batera heltzerakoan jasotzen dugun lehenengo harrerak berebiziko garrantzia du herrian integratzeko garaian, are eta gehiago etorri denak sare sozial propiorik ez badu. Beraz, biztanle berriari egiten diogun harrera oso garrantzitsua izango da.

Herrian ondo integratzeko hizkuntza oinarrietako bat da, baina horrekin batera, benetako integrazioa lortzeko gure herriko ohitura zein betebeharrak ondo ezagutzea funtsezkoa izango da.

Hori horrela, gure herrietara bizitzera datozen biztanle berri guztiei harrera egiteko lau aukera eskaintzen ditugu, herriko behar eta baliabideen arabera lanketa sakonagoa edo oinarritzkoagoa egiteko aukera zabaltzeko asmoz.

Oinarritzko lanketa egiteko honako euskarriak ditugu:

- Diptiko orokorra.
- Diptiko barruan sartzeko gehigarria.
- Udal langileentzat jarraibideak.

Gure herrian eroso bizitzeko behar dituzten oinarritzko zerbitzuen eta herriaren nondik norakoen berri zehatza emateaz gain, herriko errealitate soziolinguistikoaren berri emateko eskuorriak ditugu. Esango diegu euskararen lurraldera datozela, zer garrantzia duten arnaguneek edo udalerrri euskaldunek, zer funtzio betetzen dituzten, eta euskarak zer abantaila eskainiko dizkien beraien eguneroko bizitzan.

Biztanle berriaren ezaugarriak aintzat hartuta, eman-
go diegun mezua ezberdina izango da. Honakoak
dira bereizi ditugun xede taldeak:

- Euskal Herri kanpotik datozenak
- Euskal Herritik datozen erdaldunak
- Euskal Herritik datozen euskaldunak

**Ongi etorri
Ataunera!**

iBienvenid@ a Ataun!

El entorno, el idioma, y quizá la forma de vida cotidiana serán nuevos para ti. Somos conscientes de que, en muchas ocasiones, no es tan fácil adaptarse a otro pueblo. Sin embargo, deseamos que puedas integrarte de la mejor manera posible. Con estas líneas, queremos darte nuestra más sincera bienvenida.

El euskera, la lengua vasca, es la lengua propia de Euskal Herria. Ya lo habrás notado: es la lengua que utilizamos la mayor parte de los habitantes del pueblo. Sociolingüísticamente, nuestro pueblo es un espacio vital del euskera, un pulmón para nuestra lengua, un patrimonio natural a conservar. Somos un pueblo que vive y funciona en euskera.

Para integrarte, por supuesto que no tienes por qué renunciar a tu idioma. Pero también queremos informarte que tienes opciones para aprender el euskera en el propio pueblo, así como ayudas para ello. Aprender euskera, es comprender el pueblo en su totalidad, disfrutar más de nuestra cultura, sentirte en casa y formar parte del pueblo. Además, tendrás la oportunidad de aprenderlo y practicarlo en tu vida diaria.

En la parte posterior de esta página encontrarás servicios que puedan resultarte útiles, junto a cómo y donde puedes aprender euskera. Queremos que sepas que para cualquier consulta o ayuda que necesites, puedes acercarte a las oficinas del ayuntamiento. Te ayudaremos con mucho gusto.




Ataungo Udaltzaren webgunean aurki dezakezu informazio gehiago

ataun.eus

Lanketa sakonagoa egin nahi izanez gero, beste
hainbat euskarri ere eskaintzen ditugu:

- Eragileentzako saioa.
- Matrikulazio garairako gutun ereduak.
- Harrera saioetarako bideo orokorra.
- Harrera saioetarako gidoia osatzeko laguntza.
- Harrera saioetarako gidoia osatzeko laguntza.
- Jaia antolatzeako ideia multzoa.



1.2.5. EUSKALDUNTZE ALFABETATZEA

ZERBITZUA: EUSKALDUNTZE ALFABETATZE KANPAINA BIDERATZEA.

HARTZAILEAK: ERDALDUNAK ETA EUSKARAZ ALFABETATU NAHI DUTENAK.

HELBURUA: HERRITARRAK EUSKARA IKASTERA EDO ALFABETATZERA ANIMATZEA, ETA TALDEAK HERRIAN BERTAN SORTZEA, EUSKALTEGIRIK EGON EZ ARREN.

BITARTEKOAK: GUTUNA ETA KARTELAK.

Euskaltegirik ez dagoen udalerrietan, herrian bertan euskara ikastaroak sortzeko helburuarekin, euskaltegiekin harremanetan jarri eta kanpaina zehatzak koordinatzen eta bultzatzen ditu UEMAK.

Udaletako dirulaguntzak zehazteko laguntza eskaintzen du.



1.2.6. ERRENTA AITORPENA

ZERBITZUA: ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO INFORMAZIOA, LAGUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO KANPAINA

HARTZAILEAK: UDALERRI EUSKALDUNETAKO HERRITARRAK.

HELBURUA: HERRITARREK ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEA ETA ADMINISTRAZIOA EUSKALDUNTZEA.

BITARTEKOAK: KARTELAK, ESKU-ORRIAK, HEDABIDEAK ETA SARE BIDEAK.

Urtero egiten da kanpaina UEMaren bidez. Herritarrek errenta aitortpena euskaraz egin dezaten animatzea da helburua.

Kanpainen balorazioak ere UEMak egiten ditu, erakundeekin kopuruak kontrastatuta eta informazio hori guztia udaletara zabaldua.



1.2.7. ABIZENAK EUSKALDUNDU

ZERBITZUA: ABIZENAK EUSKALDUNTZEKO KANPAINA.

HARTZAILEAK: EUSKAL ABIZENAK ERDAL GRAFIAZ IDATZITA DITUZTEN HERRITARRAK.

HELBURUA: EUSKAL ABIZENAK EUSKAL GRAFIAZ IDATZITA AGERTZEA.

BITARTEKOAK: ESKUORRIAK ETA KARTELAK.

Udalen batek kanpaina egin nahi badu, UEMAtik kanpainarako euskarriak helarazten zaizkio eta kanpaina diseinua prestatu. Horretarako, kartelak, eskuorriak eta beharrezko materiala UEMAk jarri ohi du.

1.2.8. OSASUN-ETXEAK ETA ZERBITZU PUBLIKOAK

ZERBITZUA: OSASUNGINTZA ETA ZERBITZU PUBLIKOAK
EUSKALDUNTZEKO LANKETA.

HARTZAILEAK: HERRITARRAK, ORO HAR, ETA OSASUNGINTZAKO ETA
BESTE ESPARRU PUBLIKO BATZUETAKO ERAKUNDEAK
ZEIN LANGILEAK.

HELBURUA: HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATzea
ZERBITZU PUBLIKOETAN, OSASUNGINTZAN
ZEIN BESTE ARLO BATZUETAN.

BITARTEKOAK: DATUAK BILTZEKO DOKUMENTAZIOA ETA KANPAINA
KOMUNIKATIBOETARAKO BITARTEKOAK.



UEMAk osasungintzako zerbitzuen jarraipena egiten du modu nazionalen zein udalerriz udalerriz. Ikuspegi nazionaletik, Osakidetza-ren euskara planaren jarraipen batzordean parte hartzen du. Horrez gain, osasungintza euskalduntzeko mahaiko kide da, euskalgintzako beste eragile batzuekin batera. Bertan, Osakidetza-ren eta Osasunbidearen lan ildoak aztertu eta ekarpenak egiten zaizkie, elkarlanean herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko helburuarekin.

Horrez gain, bi urtean behin, udalerriz udalerriko diagnostikoa egiten da, ikusteko bertako langileek zer hizkuntza gaitasun duten. Familia medikuen, pediatren, larrialdietako medikuen, erizainen, haur erizainen eta harrerako langileen hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun datak behatzen dira, eta tokian tokiko ordezkari politikoekin zein herritarrekin kontrastatzen da bildutako informazioa. Ondoren, dagoen erakundeekin konpartitzen dira datuak, aurreapausoak proposatzeko.

Lan horretatik abiatuta, 2019-2020 ikasturtera begira, Osakidetzarekin prestatzen ari gara Nirekin euskaraz kanpaina. Osakidetza-k dagoeneko abian du herritarren hizkuntz hautua erregistratzeko programa bat, eta egitasmoaren helburua da herritarrek euskara lehenestea zerbitzu eta komunikazio hizkuntza gisa. Bi erakundeen artean kanpaina komunikatibo bat egingo da, udalerriz euskaldunetako herritarrak hautua egitera animatzeko. Nafarroan ere halako aukera bat bideratzeko saiakera egingo da. Osasungintzaz gain, beste administrazio batzuk ematen dituzten zerbitzuen jarraipena ere egiten da. Esaterako, epaitegiena, lurralde eta herrialde mailako erakundeena, beste mankomunitate batzuen eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten hainbat entitateena.

Uemako herrietan euskara lehenetsiko dute Kutxabankek eta Laboral Kutxak

Hitzarmena sinatu dute mankomunitateak eta bi finantza erakundek. Besteak beste, herri horietara langile elebidunak bidalko dituzte beti eta lehen hitza euskaraz egingo dute, beti ere erdalidunen eskubideei kalte egin gabe.



Enbreniz Elmeberri, Margo Elzarte, Eduardo Ruiz de Gordejuela eta Jose Labaka. © ORRIKARUKO / ARGAZKI PRESS

1.2.9. FINANTZA ERAKUNDEAK

ZERBITZUA: FINANTZA ERAKUNDEEK HERRITARREKIN EUSKARA LEHENESTEKO LANKETA.

HARTZAILEAK: HERRITARRAK ORO HAR, ETA FINANTZA ERAKUNDEAK.

HELBURUA: BANKETXEEN JARDUNEAN HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATzea, eta ENTITATEEK HIZKUNTZA NORMALIZAZIOAN AURRERA EGITEA.

BITARTEKOAK: URTEZ URTEKO AZTERKETA ETA ELKARLANERAKO MAHAIA.

UEMAk Laboral Kutxa eta Kutxabank finantza erakundeekin hitzarmen bat sinatu zuen 2016an. Bertan, banketxeek mankomunitateko udalerrietan jarraitu beharreko zenbait konpromiso hartu zituzten, euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskara lehenesteko.

Hitzarmen horren baitan, bi lan nabarmendu behar dira. Batetik, urte osoan zehar egiten den intzidentzien jarraipena: UEMAko teknikariek udalerriz udalerriz, ordezkari politikoei, euskara teknikariei eta herritarrei esker, banketxeetan izandako intzidentziak jasotzen dituzte, eta horien berri ematen diete dagokien banketxeetako euskara arduradunei. Euskara arduradunek egoera kudeatu eta soluzio bat ematen saiatzen dira.

Bestetik, urtean behin egiten da hitzarmenaren jarraipena. Horretarako, bi banketxeek beraien jardunaren balorazioa egiten dute ekainerako. Horrez gain, UEMAk bere udalerriz batzuetako egoitzekin lagin bat atera, eta bulego horietako datu-bilketa egiten du, behaketa zuzen bidez. Ekaina eta uztaila artean UEMA eta banketxeetako arduradunak bildu egiten dira, balorazio orokorra egiteko eta hobetu daitezkeen alderdiak adosteko.

Gaur gaurkoz, Kutxabank eta Laboral Kutxa dira programa honetan parte hartzen duten finantz erakundeak. Dena den, UEMAren helburua da lanketa hau zabaltzea eta beste banketxe batzuekin ere elkarlanean hasia.

2. euskal hiztunak ahalduentzeko zerbitzuak

2.1. FORMAZIO ESKAINTZA:

TAILERRAK, ERAKUSKETA, BISITA GIDATUAK...

Udalerri euskaldunetan badago batean eta bestean errepikatzen ari den kezka, nahiz eta gaur gaurkoz joera hori nagusi ez den: kalean eta etxean gero eta gehiago entzuten dela gaztelania. Ele bietako jardunek espazioa irabazi dute euskarazko jardunen gainean eta joera hori sumatzen ari dira hainbat herritan. Bada, kezka hortaz ohartuta, UEMAk formazio eskaintza zabalagoa sortu du herritarrak sentsibilizatu eta ahalduentzeko.

Udalerri euskaldunetan, maiz, herritarrak ez dira modu kontzientean ohartzen hizkuntzaren biziraupenean izan duten, duten, eta izango duten arduraz eta garrantzi handiaz. Euskal hiztun komunitateari esker iritsi gara, hein handi batean, gaur egungo egoeraraino. Hortaz, ezinbestekoa da komunitate horren jabetasunaren prozesuan eragitea. Herritar horiek jakin behar dute haien hizkuntza jarrerak izugarriko eragina izan dutela, dutela, eta izango dutela euskararen geroan.

Kezka horiei erantzuteko asmoz, orain arte baino eskaintza zabalagoarekin gatz, ahalik eta herritar gehienengana iristea baita asmoa. Horretarako, askotariko beharrezanetara egokituko diren formatuak prestatu ditugu, udalerri edo interes-talde desberdinei erantzun asmoz.

Honako saioak aurkituko dituzue atal honetan: arnaguneen tailer edota hitzaldiak, erakusketa ibiltaria, bisitailerrak, motibazio tailerra eta haur eta helduentzako tailerra. Ondoren aurkituko duzu prestatu ditugun formatu bakoitzaren helburu, hartzaile eta metodologiari buruzko informazio xehegoa. Dena den, eskaintza hau moldagarria da tokian tokiko beharrezanetara eta interes-taldeek bestelako behar zehatzen bat aurkeztuko balute egokituko genuke.

2.1.1. ERAKUSKETA IBILTARIA

ZERBITZUA: euskararen arnasmuneei buruzko erakusketa.

HARTZAILEAK: arnasmuneetako herritar guztiak.

HELBURUA: arnasmuneek duten garrantzia eta azken hiru hamarkadetan izan duten bilakaera ikusaraztea eta aurrera begirako gakoak ezagutzeko, modu didaktiko batean.

BITARTEKOAK: 13 paneleko erakusketa.



UEMAk herritarrengan eragiteko hainbat baliabide sortu ditu azken urteetan eta sortu berri duen erakusketa hau ere komunikazio estrategia horren baitan kokatzen da. UEMAren mezua herritarrengan zabaltzea da helburua eta ahalegin berezia egin da mezu ulerterrazak sortzen.

Erakusketaren mamia bi iturri nagusitatik jasotakoa da. UEMAk bi ikerketa egin zituen 2014an eta 2015ean ekin dio gizarteratzeari. Lehenbizikoa, Soziolinguistika Klusterrak egindakoa da eta Udalerrri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoa aztertzen du. Bigarrena, berriz, Gaindegiak landutakoa da eta udalerrri euskaldunen ezaugarri sozioekonomikoak biltzen ditu. Bi txosten mardul horien mamia modu sintetikoan eta praktikoan azaltzen du erakusketak, grafiko erakargarri hornituta. Bestalde, aipatutako iturriez gain, beste hiru atalekin osatu da erakusketa. Lehenbizi, euskararen arnasmuneak zer diren eta nolako ezaugarriak azaltzea garrantzizkotzat jo da. Bigarrenik, kultur ereduaren bilakaerak herritarrengan izan duen eraginari ere arreta berezia jarri zaio (internet, globalizazioa...). Azkenik, herritarren aktibazioari begirako mezu indartsu eta positiboa zabaldu nahi izan da erakusketa amaieran.

Tamaina eta moldagarritasuna:

Erakusketa 13 panelek osatzen dute eta, horiez gain, erakusketaren aurkezpen lana egiten duen beste bat ere badago. Informazio panel normalak roll-up formatukoak dira, alegia, pertsiana bat balitz bezala biltzen diren horietakoak. Oso toki gutxi behar dute bilduta daudenean, baina zabalduetakoan tamaina ikusgarria dute: metro bat zabal eta bi luze (1 x 2). Herri txikietan tamaina egokiko areto handirik ez baldin badago, formatu txikiko erakusketa muntatzeko aukera ematen du erakusketak. Hau da, panel guztiak eraman beharrean, 6-7 eramango genituzke, informaziorik garrantzitsuen eta mezuaren muina biltzen dutenak.

Esan bezala, panel berezi bat egongo da, aldi berean erakusketaren aurkezpen funtzioa egingo duena eta ikuslearekin interakzioa sortu nahi duena. Panelak zulo bat izango du erdian, eta ikusleek paperezko hegazkinetan euren ideiak eta hausnarketak idazteko aukera izango dute, ondoren hegazkinak hegan jartzeko eta zulotik sartzeko.

2.1.2. ARNASGUNEI ETA UDALERRI EUSKALDUNEI BURUZKO HITZALDIA

ZERBITZUA: EUSKARAREN ARNASGUNEETATIK ETA UDALERRI EUSKALDUNETATIK ABIATUTA, HERRIKO EGOERA SOZIOINGUISTIKOA ULERTZEKO ETA LANTZEKO GAKOAK EMATEA.

HARTZAILEAK: HERRITARRAK.

HELBURUA: HERRITARREK EUSKARAREN ARNASGUNEEN ETA UDALERRI EUSKALDUNEN EZAUGARRI ETA FUNTZIOAK EZAGUTzea.

IRAUPENA: 90 MINUTU.



EDUKIA ETA METODOLOGIA:

Hitzaldia UEMAko teknikari batek emango du. Gaitegia eta iraupena zehaztuta dauden arren, aukera egongo da, beharraren arabera, zenbait moldaketa egiteko.

Honakoak dira hitzaldiaren gako nagusiak:

- Arnasguneen ideia, ezaugarriak eta garrantzia. Zergatik dira beharrezkoak?
- Arnasguneak eta udalerrri euskaldunak. Zerk batzen eta desberdintzen ditu?
- Hizkuntzaren bilakaera udalerrri euskaldunetan eta herrian bertan: datuak eta irakurketak.
- Ekologia eta hizkuntz ekologia, berdintasun neurriak ulertzeko gakoak.
- Hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak: hirigintza, turismoa, aisialdia, kultura...
- Eredu berritzailea: euskara zeharkakotasunez erakundeetan zein herri eragileetan.
- Udalerrri euskaldunetako eta arnasguneetako herritaren papera, hizkuntza babesten eta zabaltzen.

2.1.3. ARNASGUNEI BURUZKO TAILERRAK:

ZERBITZUA: EUSKARAREN ARNASGUNEETATIK ETA UDALERRI EUSKALDUNETATIK ABIATUTA, HERRIKO EGOERA SOZIOINGUISTIKOA ULERTZEKO ETA LANTZEKO GAKOAK EMATEA.

HARTZAILEAK: HERRITARRAK.

HELBURUA: HERRITARRAK EUSKARAREN ARNASGUNEEN ETA UDALERRI EUSKALDUNEN EZAUGARRI ETA FUNTZIOAK EZAGUTzea, eta BERAIEN UDALERRIKO DIAGNOSTIKOA EGITEA.

IRAUPENA: 2 ORDUKO SAIO BAT EDO 2 ORDUKO BI SAIO.



Edukia eta metodologia:

Tailer honen helburua da herritarrek ikustea euskararen arnasmuneek eta udalerrri euskaldunek zer garrantzia duten hizkuntzaren normalizazioan. Euskarak beharrezkoak ditu nagusi izango den eremuak, eta arnasmuneetako eta udalerrri euskaldunetako herritarrek asko egin dezakete hizkuntza zaintzeko eta zabaltzeko. Hori ulertzeko, eremu horien ezaugarriak eta funtzioak azalduko dira, eta urtez urte izan duten bilakaera ezagutuko dute. UEMAko teknikariak gidatuko ditu saioak.

Azalpen horiek emateaz gain, datu soziolinguistikoekin jolas egingo da. Zein dira gure udalerrriko ezagutza datuak? Etxeko erabilera zenbatekoa da? Kanean, zenbatek hitz egiten dute euskaraz? Datu horiek mahai gainean jarri, eta hausnarketarako eta iritziak konpartitzeko aukera egongo da, hainbat ariketen bidez. Nolakoa zen gure udalerrria atzo, nolakoa gaur eta nolako herria nahi dugu bihar?

Horrekin lotuta, hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak ere aztertuko dira. Izan ere, lehen begiratuan, euskararekin lotura zuzena ez duten faktore horiek erabakigarriak dira udalerrri bateko egoera soziolinguistikoan. Esaterako, hirigintza ereduak, turismoak, kultur mugimenduak... asko eragin dezake euskararen ezagutzen eta, batik bat, erabileran.

Lehen saioa bigarren saio batekin josiz gero, aukera egongo da herriko diagnostikoan sakontzeko eta euskalgintzarentzat zein udalarentzat bi-deorri bat sortzeko. Zertan egin beharko dugu indarra? Zein dira hobetzeko ditugunak edo indartu behar ditugunak? Hainbat udalerritan, tailer honetatik sortu edo berpiztu dira euskalgintzako taldeak.

2.1.4. MOTIBAZIO TAILERRA
ZERBITZUA: MOTIBAZIO TAILERRA.
HARTZAILEAK: ERDARARAKO JOERA DUTEN HERRITARRAK.
HELBURUA: HIZKUNTZA PRAKTIKEZ HAUSNARTZEA, ETA GAZTELANIARAKO JOERA DUTEN HERRITARRAK EUSKARAZ EGITEAREN BALIOAZ OHARRARAZTEA.
IRAUPENA: 2 ORDU.



Edukia eta metodologia:

Gaztelaniarako joera duten herritarrak euskarara hurbiltzea da tailerraren helburua. Pertsona bakoitzak hainbat arrazoi izan ditzake egunerokoan hizkuntza bat edo bestea aukeratzeko. Bakoitzak bere bizi-kontakizuna du, eta horren arabera eraiki ditu bere hizkuntz ohiturak, beste hainbat ohitura bezala. Inor epaitu gabe, tailer honek herritarra bidaia batean murgiltzera gonbidatzen du, bere joerak azter ditzan eta euskaraz ez egiteko arrazoiak identifika ditzan. Helburua izango da euskaraz ez egiteko arrazoi horiek, pixkanaka bada ere, euskaraz egiteko arrazoi bihurtzea.

UEMAko teknikariak gidatuko du saioa, eta baliabideak eskainiko dizkie parte-hartzaileei euskara bere sentitzeko, eta beraien bizipenak zein sentazioak adierazteko. Beti ere, euskararen aldeko hautua egiteko erraztasunak jarriko zaizkie eta beraiak eginiko bidea aitortuko zaie.

Honako edukiak landuko dira:

- Arnasguneen garrantzia.
- Arnasguneen garapena eta norbere herriko datuak.
- Korrante nagusien indarra, korrante txikien aurrean.
- Hizkuntza nagusiak eta hizkuntza gutxiak.
- Ekologia eta hizkuntz ekologia, berdintasun neurriak ulertzeko gakoak.

Metodologiari dagokionez, parte-hartzaileek beraien esperientzia kontatzea eta haiek eroso sentitzea bilatuko du dinamizatzaileak. Horretarako, bideoak, bisualizazio ariketak eta taldekako hausnarketa dinamikak erabiliko dira.

Tailer honek eskatzen duena da deialdia oso ondo egitea. Publikoa ondo finkatzea, eta gonbidapen bidez-eta taldetxoa osatzea. Deialdia ondo egin den kasuetan, oso balorazio ona egin da saioaz.

2.1.5. EUSKARA EZ DAKITENENTZAKO TAILERRA

ZERBITZUA: EUSKARA EZ DAKITEN
HERRITARRENTZAKO

KONTZIENTZIAZIO TAILERRA.

HARTZAILEAK: EUSKARAZ EZ DAKITEN
HERRITARRAK.

HELBURUA: EUSKARAZ EZ DAKITEN
HERRITARRAK OHARTzea EUSKARAREN BALIOAZ
ETA BERAIEK HIZKUNTZAREN GARAPENEAN IZAN
DEZAKETEN FUNTZIOAZ.

IRAUPENA: 90 MINUTU.



Edukia eta metodologia:

Euskaraz ez dakiten herritarrak dira tailer honetako protagonistak. Tailerrak bi helburu nagusi ditu: batetik, pertsona horiek ikustea nahiz euskaraz ez jakin, beraien jarrera lagungarria izan daitekeela ingurua euskalduntzeko, alegia, euskarari eta euskaldunei beraien bidea egiten laguntzeko. Bestetik, euskararekin mundu berri bat deskubritu dezaketela ikusaraztea ere bada xedea. Izan ere, hizkuntza bat geureganatzeko, ez dugu gure ama hizkuntzari eta beste hizkuntzei uko egin behar, eta Euskal Herriko hizkuntza ezagutzeko pauso emateak, bizitzeko, ikusteko eta sentitzeko modu berriak eskainiko dizkie.

Tailer hau oso interesgarria da udalerrri euskaldunetan bizi diren guraso erdaldunentzat. Izan ere, haiek zalantzak izaten dituzte beraien seme-alabak euskarara murgiltzerakoan. Baliabideak eskaintzea eta bultzada-txo bat ematea behar izaten dute, askotan.

Jarrera da gakoa. Parte-hartzaileek sentitu behar dute, oraingoz, euskaraz ez jakin arren, badirela euskararen alde egin ditzaketen eguneroko ekintzatxoak, eta hori jarrera kontua dela. Horretarako, beharrezkoa izango da euskara balioan jartzea, eta aitortza bat egitea haren iraupenari eta euskal hiztunei zein munduari ematen dien izaera bereziari.

Helburu horietara iristeko, hainbat ariketen bidez, beraien identifikatu beharko dute zer egoeratan har dezaketen euskararen aldeko jarrera, eta nola jokatu beharko duten euskarari bide emateko. Horrez gain, tartea izango dute hizkuntzen arteko harremanek beraien baitan sortu dituzten kontraesan edo sentimenduez hitz egiteko, asko izaten dutelako kontatzeko beraien lekutik.

Honako edukiak landuko dira horretarako:

- Hizkuntzen mundua: hizkuntza handiak eta txikiak.
- Berdintasun balioak naturan eta hizkuntzetan.
- Arnasguneak: zergatik dira garrantzitsu?
- Berezi izatearen balioa.
- Nola bizi dugu guk hizkuntzen gatazka?
- Zer egin dezakegu gure lekutik?

2.2. HEZKUNTZA PROIEKTUA

Arnasguneei buruzko hezkuntza proiektuarekin ikasleak hizkuntzen arteko harremanez jabetu eta euskaldun gisa ahaldundu eta aktibatzea da helburua.


Hezkuntza arlo estrategikotzat jotzen da hizkuntza-ren ekologia eta arnasguneen inguruko kontzeptuak barneratu, inertzietatik kontzientziara jauzi egin eta euskal hiztun gisa jarrerak aktibatzeko.

Proiektua estrategikotzat jo da, sentsibilizazio, kontzientziazio eta ahalduntzera bidean transmisioaren katebegiak lotzea ahalbidetuz.

2.2.1. HAUR HEZKUNTZA:

Udalak euskaldundu arren udalerrak erdalduntzen ari direla ohartuta, herritarren kontzientziazioa eta sentsibilizazioa da UEMaren ildo nagusietako bat azken urteotan. Horren baitan, ikasturte honetan UEMako herrietako ikastetxe guztietan ari dira lanean UEMako teknikariak, DBHko eta Batxilergoko ikasleekin, euskararen arnasmuneei buruzko hezkuntza proiektuarekin. Ekimen honek duen garrantziaz ohartuta, izan duen erantzuna ikusita, eta batetik eta bestetik heldu diren eskaerei erantzuteko, orain, haur hezkuntzara ere zabalduko du proiektua UEMak.

Horretarako, elkarlanean aritu da Katxiporreta kooperatibarekin eta Miren Amuriza bertsolari eta irakaslearekin. Euskara bilduma berria abiarazi dute Katxiporretak eta Elkar argitaletxeak, Amurizak idatzitako lau liburuekin. Liburu horien edukia idazteko UEMaren lana eta aholkularitza kontuan izan du Amurizak, eta UEMak unitate didaktikoak prestatu ditu liburu bakoitzaren inguruan, urtarriletik aurrera eskoletan lantzen hasteko. Euskara da lau liburuen gaia, baina bakoitzak arlo ezberdin batetik jorratzen du.



EUSKARA BILDUMA

IZENBURUA: PORROTX. HIZKUNTZAREN ARNESA.


IDAZLEA: MIREN AMURIZA.

ARGITARATZAILERAK: KATXIPORRETA, ELKAR.

HAUR HEZKUNTZARAKO UNITATE DIDAKTIKOA: UEMA.

Porrotxen herrian euskaraz bizi eta mintzo dira denak, zahar zein gazteenak. Etxean, eskolan, parkean, frontoian eta abar. Porrotxek ere euskaraz egiten die denei. Hirira joaten denean, ordea, ohartzen da beste ahots eta hizkuntzak ere badirela. Badirela euskara hain ohikoa ez den lekuak ere.

Udalerrri euskaldunen eta euskararen arnasmuneeen garrantzia nabarmendu nahi du liburu honek. Gida didaktikoarekin, hizkuntza ekologiaren ikuspegia landuko da, balio handiko gune naturalak zaintzea ohikoa den bezala, hizkuntzaren gune naturalak ere zaintzeko beharra erakusteko.



EUSKARA BILDUMA

IZENBURUA: Marimotots. Euskara ikasten.

IDAZLEA: Miren Amuriza.

ARGITARATZAILEAK: Kitziporreta, Elkar.

Haur Hezkuntzarako Unitate Didaktikoa: UEMA.

Marimotots Extremaduran jaio zen, Espainian, eta gazteleraz mintzo zen han. Haurra zenean heldu zen Euskal Herrira, baina bertako hizkuntza ezagutu gabe, ez zituen ulertzen kontu asko, eta arraro sentitzen zen. Astiro-astiro, ordea, euskarazko hitzak ikasten hasi zen, bizikletaz ibiltzen bezala, lagunei jarraika, azkenean egun batean euskaraz amets egi-tea lortu arte.

Euskalduntzean eta bertako hizkuntza ikasteaz zabalten den mundu berria erakusten du liburuak.



EUSKARA BILDUMA

izenburua: **PIRRITX. Hizkuntza zer ote?**


idazlea: **Miren Amuriza.**

argitaratzaileak: **KATXIPORRETA, ELKAR.**

Haur Hezkuntzarako UNITATE DIDAKTIKOA: **UEMA.**

Euskaldun petoa ez ezik, euskaldun kontzientea ere bada Pirritx. Euskara munduari begiratzeko leioa dela dakiena. Bereizten gaituena. "Hizkuntza dira betaurreko ikusezinak, munduari begiratzeko zeuen neurrira eginak". Horren jakitun, hizkuntza zaindu nahi du, altxorra delakoan.

Hizkuntza bakoitzak, bere berezitasunetik, aniztasunari egiten dioen ekarpena lantzen da liburuaren osagarri den unitate didaktikoan.



EUSKARA BILDUMA

izenburua: **Pupu eta Lore. Ikusi-makusi.**

idazlea: **Miren Amuriza.**

argitaratzaileak: **Katxiporreta, Elkar.**

Haur Hezkuntzarako Unitate Didaktikoa: **UEMA.**

Pupu eta Lore haurrak dira, eta euskara dute ama-hizkuntza. Hizkuntzaren doinua jaso zuten txiki-txikitan, erdi lo zeudenean Pirritxen tripan.

Transmisioaren garrantziaz oharrazi nahi duen liburua da Euskara bildumako laugarren hau. Unitate didaktikoarekin, txiki-txikitandik etxean euskara entzute eta gurasoengandik euskara jasotzea zein garrantzitsua den ikusaraziko da, azken azterketa soziolinguistikoen arabera erabilerak batez ere helduen artean behera egin duela ohartuta.

2.2.2. LEHEN HEZKUNTZA:

ZERBITZUA: IKASLEAK AKTIBATZEKO EGITASMOA.
HARTZAILEAK: LH4 eta LH6 mailako IKASLEAK.
HELBURUA: LH4. mailan HELBURU nagusiak izango DIRA
ARNASGUNEETI BURUZKO LEHEN KONTZERTUAK AZALTzea, eta ERAGI-
LETZA EDO AKTIBAZIOA SUSTATzea.
LH6. mailan, BERRIZ, Euskal HERRIKO egoera soziolinguistikoa
NOLAKOA DEN AZALTzea eta arnasguneen DEFINIZIOAN sakontzea.
BITARTEKOAK: GUZTIRA 8 SAIO DAUDE PRESTATUTA
MAILA BAKOITZEAN LAUNA SAIOGAN LANTZEKO.



LHn lantzeko 2 unitate ditu UEMAK: LH 4rako bat eta LH 6rako beste bat.

LH4. ETxean eta kalean, BERDIN-BERDIN JOLasean...

Zer da hizkuntza? Zertarako balio du? Norbere hizkuntza biografia ezagutuko dugu, eta etxean ez ezik herrian ere euskarak zer toki duen aztertu.

LH6. UKazioa LEGETZAT HARTUZ, BETI aurrera JOATEA...

Euskal Herriko egoera soziolinguistikora hurbilpen bat egingo dugu ikasleekin eta arnasguneen kontzeptua ere landuko dugu

2.2.3. BIGARREN HEZKUNTZA:

DBH3 eta DBH4:

ZERBITZUA: IKASLEAK AKTIBATZEKO EGITASMOA.

HARTZAILEAK: DBH3ko eta DBH4ko ikasleak, eta irakasleak.

HELBURUA: arnasmuneen eta hizkuntza ekologiararen kontzeptuak lantzea ikasgelan, bakoitzak hizkuntzaren biziberritzean duen papera ikusarazteko. BITARTEKOAK: 6 jardueraz osaturiko bi unitate didaktiko.



Sei jardueraz osaturiko bi unitate didaktiko sortu dira maila hauetarako. Jarduerak material didaktiko anitza dute: irakasleen eta ikasleen fitxak, PPTak, fitxa berezituak, ikus-entzunezkoak, mapak, atal osagarriak... eta unitateak garatzeko moduak zehaztuko du jarraipen sistema bera. Jarraipen sistema pertsonalizatua izango da, malgutasuna eskaintzen baita unitateak garatzeko, ikastetxe bakoitzak bere egutegi akademikoaren arabera txertatu dezan egutegian.

Batzuk tutoretzetan landuko dute, beste batzuk euskara arloan edota departamentu desberdinetatik ere landu daiteke, zeharlerrotasuna emanez gaiari, ikasleentzat irakasle erreferenteak arrotuz eta ikastetxearen norabidea markatuz.

UEMAk unitate didaktikoen inguruko formazio saioak eskaintzen dizkie irakasleei eta irakasleak dira jarduerak ikasgelan txertatzeaz arduratzen direnak.

2.2.4. BATXILERGORAKO TAILERRAK

ZERBITZUA: IKASLEAK AKTIBATZEKO
FORMAZIO SAIOAK.
HARTZAILEAK: BATXILERGOKO IKASLEAK, eta
IRAKASLEAK.
HELBURUA: arnasguneen eta hizkuntza
ekologiaren kontzeptuak lantzea
IKASGELAN, BAKOITZAK HIZKUNTZAREN
BIZIBERRITZEAN DUEN PAPERA IKUSARAZTEKO.
BITARTEKOAK: 90 MINUTUKO BI SAIO,
TAILER MODUKOAK.



Batxilergoko ikasleentzat ordu eta erdiko bi saioko tailerrak eskaintzen dira. Kasu honetan UEMAKo teknikariak dira ikasgeletan sartzen direnak.

Tailerraren helburu nagusiak hiru puntutan laburbildu daitezke:

1. Ikasleen pertzepzio soziolinguistikoan eragitea. Gazteek euren hizkuntza praktikak eta herriko egoera Euskal Herriko testuinguru orokorrean kokatu behar dituzte. Horrez gain, hizkuntzaren izaera ez dela egonkorra eta bilakera dinamikoa dela ulerraraztea da helburua.
2. Udalerrri euskaldunek euskararen normalizazioan duten funtzio garrantzitsua azpimarratzea eta zeregin horren protagonista bihurtzea. Ikasleek udalerrri euskaldunetako herritarrek daukaten lidergo natural horren kontzientzia hartzea da xedea.
3. Norbere jarrerei buruzko gogoeta egitera bultzatuko dituzten jarduerak egingo dira. Bakoitza-
ren bizimoduan daude elementuak aztertuz (fami-
liakideak, lagunak, testuinguru konkretuak,...) eus-
kal hiztun moduan kontzientzia eta ardura hartzera
bideratuko dira ikasleak.

2.2.5. BAGOAZ TAILERRA

ZERBITZUA: IKASLEAK AKTIBATZEKO EGITASMOA.
HARTZAILEAK: LH6 MAILAKO IRAKASLEAK.
HELBURUA: UDALERRI EUSKALDUNEK EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN DUTEN FUNTZIO GARRANTZITSUA AZPIMARRATzea eta zeregin HORREN PROTAGONISTA BIHURTzea.
BITARTEKOAK: ORDU BETEKO TAILERRA, UEMAKO TEKNIKARIK GIDATUA.



UEMAko udalerrri askotan, LH6ra arteko eskaintza herrian bertan jasotzeko aukera izaten dute ikasleek, gero, DBH egitera herri handiagoetara joaten dira. Udalerrri horiek, normalean, erdaldunagoak izaten dira.

Ikasle horietako askok galdu egingo dute batxilergora arteko UEMaren hezkuntza proiektuaren jarraipena, udalerrri ez euskaldunera joango baitira, edo UEMAKoa ez den besteren batera. Hori dela-eta, UEMAK garrantzitsutzat jo du LH6ko ikasleekin zuzenean egotea beraien betiko ikasketxea utzi baino lehen hizkuntza ohituretan gertatuko diren aldaketei buruz hausnartzeko, batetik, eta inguru erdaldunago horretan joka dezaketen paper garrantzitsuaz ohartzeko, bestetik.

Edukia eta metodologia

Saioak ordubeteko iraupena du. Helburu nagusiak dira herriko errealitatearen jabe egitea, beraien hizkuntza ohituren inguruan hausnartzea eta izan dezaketen lider paperaz kontzientzia hartzea.

Saioa arina eta dinamikoa da, eta edukiak barnertzeko parte hartzea bilatzen da. Lehenik, ikasleen hizkuntza ohiturak ezagutuko ditugu jolas baten bidez. Bigarrenik, herriko datu soziolinguistikoak ezagutzeko lehiaketa egingo dugu. Taldeka jarrita herriko ezagutza eta erabilera datuak zeintzuk diren asmatu beharko dute. Hirugarrenik, hurrengo ikasturteko hainbat egoera aurreikusteko rol jokoak egingo ditugu. Azkenik, saioa laburbilduz, bukaerako mezua emango die UEMAKo teknikariak.

2.2.6. BIXITAILERRA:

ZERBITZUA: EUSKARAREN ARNASGUNEEN BURUZKO ERAKUSKETA + HORREN INGURUKO BISITA GIDATUA ETA TAILERRA.
HARTZAILEAK: BEREZIKI DBH1 eta DBH2ko IKASLEAK.
HELBURUA: ARNASGUNEEN DUTEN GARRANTZIA ETA AZKEN HIRU HAMARKADETAN IZAN DUTEN BILAKAERA IKUSARAZTEA ETA AURRERA BEGIRAKO GAKOAK EZAGUTzea, MODU DIDAKTIKO BATEAN.
BITARTEKOAK: 13 PANELEKO ERAKUSKETA.



Методология:

Erakusketari zuku handiagoa atera asmoz, eta herri-tar gehiagorengana iritsi asmoz, herriko ikastetxeei bisita gidatuak egiteko aukera eskaini zaie.

Erakusketak jasotzen dituen edukiak bere horretan azaldu beharrez, 55 minutuko iraupena duen saio didaktiko bat sortu da.

Erakusketa modu aktiboan barneratzea da helburua, eta horretarako lehenbizi azalpen teoriko laburra emango zaie.

Azalpen labur horretan, UEMA zer den azalduko zaie eta ondoren erakusketaren nondik norakoen berri emango zaie. Arnasguneak zer diren eta zein garrantzia duten ezagutzeko tartea ere eskainiko da.

Behin azalpenak emanda, taldeka jarriko dira eta lau multzo osatuta, talde bakoitzak fitxa bat bete beharko du.

Jarraian, taldeka bildutako informazioa gainontzeko guztiekin partekatuko dute plenarioan.

Amaitzeko, paper zurian euren gogoe-ta laburrak idatziko dituzte, paper horiekin hegazkinak egin eta horretarako prestatutako paneleko zulotik sartzen saiatuko dira.

2.2.7. ISPILUARI BEGIRA:

ZERBITZUA: HAURREN ETA GURASOEN TAILERRA.
HARTZAILEAK: 6 eta 11 URTE BITARTEKO
HAURRAK, eta HAUEK GURASOAK.
HELBURUA: HAURREK ETA GURASOEN
ELKARREKIN HAUSNARTZEA HIZKUNTZA
OHITUREI BURUZ, ALDAKETA ERAGITEKO.
IRAUPENA: 2 ORDU.



METODOLOGIA:

Ariketa praktikoak zein teoria partekatuko ditugu. Teoria, batik bat, gurasoentzat azalduko dugu. Horrez gain, bideoak eta abestiak erabiliko ditugu. UEMAKo bi teknikarik egingo dituzte dinamizatzaile lanak.

Lehen ordubetean gurasoak eta haurrak bananduta egongo dira bi taldetan. Bigarren zatian, guztiak batera egongo dira.

Gurasoekin teorikoa izango da tailerra. Erakusketako edukiak erabilia, honako gaiak landuko ditugu:

- Arnasguneak.
- Herri euskaldunen zein erdaldunen garapen soziolinguistikoa.
- Arnasguneetan hizkuntzaren gorabeherak aztertzeko gakoak.
- Dagokion herriko datuak eta haien irakurketa.
- Hausnarketa norbere hizkuntz hautuez.

Haurrekin praktikoa izango da tailerra: hiru txokotan banatuko dugu lekua (etxea, parkea/jolastokia eta eskola). Txoko bakoitzari mural bat jarriko diogu, eta hiru taldetan banatuko ditugu umeak.

Gure helburua izango da umeek azaltzea gune bakoitzean zer hizkuntza entzuten eta erabiltzen duten. Horretarako, gune bakoitzean ariketa bana egin beharko dute. 20 minutu pasatuko dituzte txoko bakoitzean.

Bigarren zatian, gurasoak soziolinguistika tailerrean azalduko kontzeptuen jabe izango dira, eta umeek azaldu egingo dizkiete zer ondorio atera dituzte txokoz txoko egin dituzten ariketetan.

Euskararen alde pauso bat aurrera egiteko egin dezaketenez hausnartzeko eskatu zaie taldeka jarrita. Taldeetan haurrak beraien gurasoekin jarriko ditugu.

Bukaeran egoera bat aukeratuta, antzerkitxo bat egiteko eskatuko diegu, beti ere euskararen aldeko pauso bat irudikatuz.

2.3. GIZARTE ERAGILEAK AHALDUNTZEKO EGITASMOAK



ZERBITZUA: HERRIKO TALDE ETA ERAGILEEK HIZKUNTZA IRIZPIDEAK ZEHAZTEKO LANKETA.

HARTZAILEAK: ORO HAR, HERRIKO TALDE ERAGILEAK, BAINA ARLO JAKIN BATEKO ERAGILEEKIN ERE EGIN DAITEKE LANKETA.

HELBURUA: HERRIKO TALDE-ERAGILEEK HIZKUNTZAN ERAGITEKO DUTEN GAITASUNAZ JABETZEA ETA GUZTIEK BATERA HIZKUNTZA IRIZPIDEAK BATERATZEA.

PROZESUA: TALDE ERAGILEEKIN BANAN-BANAN EGITEN DEN BILERA ERRONDA, ETA BESTE BI BILERA IREKI, GUZTIEKIN.

METODOLOGIA:

Egitasmoa urtean zehar gauzatuko da eta hainbat fasetan banatuta egongo da. Fase bakoitzean UEMAREN egitekoa zein izango den zehaztuko da hurrengo lerrootan.

Ondorengoak izango dira emango diren pausoak:

1. Herriko eragileekin banan-banako bilera erronda:

Talde-eragileen zerrendaketa egin ondoren, egitasmoan bitartekari izan daitezkeen horie ibilera egiteko proposamena egingo zaie. Bileren helburua izango da lehen hartu-emana egitea, esku artean dugun egitasmoa aurkeztea eta euskararen erabileraren kezka inguruko lehen feedbacka jasotzea.

Euskarari dagokionean dituzten beharrak identifikatuko dira eta bileraren bukaeran egitasmoan parte hartzeko eskaintza egingo zaie.

2. Autodiagnosiaren fasea:

Talde bakoitzari galdetegi bat emango zaio beraiek betetzeko izango dena. Galdetegi honen helburua izango da hizkuntza irizpideen inguruko haus-

narketa egitea. Taldeko funtzionamenduan hizkuntzaren trataera zein den jasoko da galdetegiaren bidez. Egoera ezberdinen aurrean nola jokatzeko duten galdetuko zaie. Gaiari buruzko hausnarketa sustatu nahi da ariketa honen bidez. Beharrak eta gabeziak non identifikatzen dituzten ere jasoko da, baita, oro har, herriko erabileraren inguruan duten pertzeptzioa ere.

3. Herriko talde-eragile guztiekin batera bilera:

Lehen bilera erronda bukatuta, eragile guztiekin batera bilera egingo da. Bileraren helburua izango da elkarte, taldeetako hizkuntza funtzionamenduari buruzko feedbacka jasotzea, praktika onak ezagutzea eta beharren identifikazioa egitea.

4. Konpromisoak adosteko fasea:

Talde-eragile bakoitzari etxe barruan gaiaren inguruko lanketa egiteko eskatuko zaio eta horretarako laguntza eskainiko zaie. Honako galderen inguruan hausnartuko da taldeetan:

- Taldean sumatzen ditugun gabeziak gainditzeko zer egin dezakegu? Zer da gure esku dagoena?
- Zer da guk egin dezakeguna, oro har, herriko euskararen erabileran aurrera egiteko?
- Ditugun beharrei erantzuteko zein laguntza behar dugu?

Banakako hartu-emanak egingo dira talde-eragileekin.

5. Talde-eragileekin bigarren bilera:

Bileraren helburua izango da gutxieneko hizkuntza irizpide bateratuak adostea, elkarlanean ekintza batzuk egiteko konpromisoa hartzea eta elkarlanerako bitartekoak adostea.

6. Eragile guztiek elkarrekin ekimena kalean

Proiektzio publikoa izango duen ekimen bat antolatzea elkarrekin. Euskararen Eguna antolatzea izan daiteke aukera bat.

EGITASMOAREN JARRAIPENA:

Egitasmoari jarraipena egiteko batzorde edota talde eragile bat osatuko da. Honako pertsonen osatua egongo da gutxienek taldea: UEMAko teknikaria, udaleko zinegotzia eta egitasmoaren gidaritza eramango duen pertsona edota enpresako langilea. Horiez gain, interesgarria izan liteke talde eragileetako ordezkari bat egotea ere.

2.4. EUSKARALDIA

ZERBITZUA: Euskaraldia ariketa
soziala lantzeko laguntza ematea.
HARTZAILEAK: HERRITARRAK,
ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK.
HELBURUA: euskararen erabilera areagotzea.



Euskaraldia euskararen erabilera areagotzeko ariketa soziala 2018ko azaroan eta abenduan egin zen lehen aldiz, Euskal Herri osoan. Helburua zen euskaraz dakiten guztiek euskaraz aritzeko hautua egitea eta horretarako baldintza sozialak sortzea. Erakundeen zein gizarte zibilaren babesa izan zuen egitasmoak. Herriz herri antolatu ziren batzordeak, eta UEMAK aholkularitza eta formazioa eskaini zuen, batzordeak osatzeko zein Ahobizi eta Belarriprest rola hartu zuten herritarrak ahalduntzeko.

2019-2020 ikasturtean, erronka berri batekin dator Euskaraldia. Norbanakoen hizkuntza ohituretan eragiten saiatuko da, lehen aldian bezala, baina erakunde eta eragileek ere aurrerapausoak eman beharko dituzte. Erakundeek, enpresek, herri eragileek... ere parte hartuko dute Euskaraldian, eta beraien lana izango da Ariguneak edo euskaraz aritzeko gune zehatzak sortzea. Gune horietan euskara izango da lan, zerbitzu eta hurreman hizkuntza.

Bigarren aldi honetan, UEMAK honako laguntza eskainiko du bere udalerrietan Euskaraldian parte har dezaten:

- Udalerriaren izena emango da Euskaraldian, ez entitateena.
- Batzorderik ez dagoen udalerrietan, batzordea sortzeko ahalegina egingo da: aurkezpena, lehen bilera eta aholkularitza.
- Entitateen zerrenda eta *mapeoa* egiteko laguntza emango da, udalaren parte-hartzearekin.
- Ahobizi eta Belarriprest izateko tailerrak edota formazioa eskainiko dira, batzordekideei edo herritarrei zuzenean.
- Erakundeek edo eragileek eskainitako tailerra emango da, horretarako baldintzak eta beharra ikusiz gero.

3. UDALERRIAREN Zaintzarako zerbitzuak:

Udalerri euskaldunak bizirik eta euskaldun izaten jarraitzeko politikak martxan jartzea beharrezkoa da.

Zentzu horretan, UEMA prebentzioaren ikuspuntua txertatzeko eta euskara zeharlerrotasunean lantzeko saiakera berezia egiten ari da azken urteotan. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa da bitarteko sonatuenetakoa, baina badira gehiago ere.

3.1. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA



EGITASMOA:

egitasmo batek (hirigintza plana, plan partziala, kutur egitasmo bat, turismo plan batek...) herriko errealitate linguistikoan izan ditzakeen balizko eraginak aurreikusi, identifikatu eta ebaluatu asmoz, ELE tresna (eragin linguistikoaren ebaluazioa) aplikatzea.

HELBURU Nagusia:

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren helburua da eremu jakin baten egitasmoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea. Halako jardura batek euskararen hizkuntza-komunitateari kalterik eragin diezaiokeela aurreikusiz gero, kalte hori murrizteko edo aurrea hartzeko proposamenak edo neurri zuzentzaileak zehazten dira ebaluazio-prozesuan.

NORK EGITEN DU EBALUAZIO Lana?

Hirigintza plan orokorren kasuan hizkuntza aholkularitza kontratatuko da txostena egiteko, baina egitasmo txikiagoen kasuan UEMako teknikaria arduratuko da lana egiteaz.

Dena dela, ebaluazio prozesuan zehar garrantzitsua izango da ebaluazio lantaldearen egitekoa. Ebaluazio lantaldea disziplina anitzeko pertsoez osatua egongo da: hizkuntza teknikariak, udal ordezkariak, gaiaren arabera adituak (arkitektoa, kutur teknikaria, turismo teknikaria...). Lantalde honen egitekoa ebaluazio bileretara joatea izango da eta aurretiaz egindako lanaren inguruko iritzia ematea. Guztira hiruzpalau bilera izaten dira.

Unean-unean kanpaina berezituak egiten ditu zerbitzuak euskaraz ere izan daitezen eskatzeko. Adibidez, UEMako herrietan egingo diren ordezkapenetan mediku euskaldunak kontrata ditzatela eskatzeko lanketa egiten du udan.

DIRULAGUNTzak

UEMAk urtero dirulaguntza deialdia argitaratzen du egitasmo zehatzek udalerrian izango luketen eragin linguistikoa aztertzeko eta Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko.

3.2. TURISMOA



ZERBITZUA: TURISMO ESKAINTZAN EUSKARA BALIOAN JARTZEKO LANKETA.
HARTZAILEAK: HERRI TURISTIKOETARA DATOZEN BISITARIAK ETA TURISMO SEKTOREKO LANGILEAK.

HELBURUAK: GUNE EUSKALDUN TURISTIKOEK EUSKARAREN BIZIRAUPENEAN DUTEN GARRANTZIA NABARMENTzea, BISITARIARI HERRI EUSKALDUNA GARELA ERAKUSTEA, BISITARIEK HERRI EUSKALDUN BATEAN EGOTEAREN ESPERIENTZIAZ GOZA DEZATEN LORTzea ETA EUSKARA MARKA BEZALA ZABALTZE.

UEMAk lantalde bat du turismo arloan euskararen erabilpena eta presentzia aztertu eta garatzeko eta, horren argitara, kide dituen udalerrietan ekimenak bideratzeko. Lantalde horretan parte hartzen dute UEMAko teknikariek eta turismogune diren udalerrietako euskara zerbitzuek.

Elkarlanean hainbat lan eta euskarri sortu dira eta asmoa da aurrera begira eskaintza zabaltzen joatea. Besteak beste, bisitarietzako hiztegiak eta udalerrri euskaldunen mapa sortu ditu UEMAk, eta udalekin elkarlanean bisitarien harrera guneetan banatu ohi ditu.

Horrez gain, turistek euskararen inguruan duten pertzepzioa aztertzeko galdetegia ere badu UEMAk. Herriren batek erabili eta azterketa egin nahi izanez gero, bitartekoak eskaini eta erantzunak eta datuak ustiatu ondoren txosten propioa egiteko aukera dauka.

3.3. EUSKARAREN KALE ERABILERA NEURTZEA



ZERBITZUA: Lau urtetik behin udalerriko euskararen kale erabilera neurtzea.

HARTZAILEAK: Tokian tokiko udala, edo dagokion interesduna.

HELBURUAK: Udalerrri euskaldunetako kale erabilera datuak egunean izatea, egoera soziolinguistikoaren bilakaera ezagutzeko eta jarraipena egin ahal izateko.

UEMAko udalerrri batzuetan, handienetan bereziki, euskararen kale erabilera neurtu izan dute, eta ezagunak dira herri horietako kale erabilera datuak eta azken urteetako bilakaera. UEMAk, udalerrri euskaldunetako datu soziolinguistikoaren behategi papera jokatzeko helburuarekin, bere udalerrri guztietan euskararen kale erabilera neurtzea erabaki zuen 2017an. UEMAk kide diren udalerririk txikienetan inoiz neurtu gabe zegoen euskararen kale erabilera, eta UEMAk beharrezkoa iritzi zion herri horietako kale erabilera datuak ere egunean izatea, udalerrri euskaldunetako zein arnaguneetako bilakaera ezagutu eta aztertu ahal izateko.

Euskararen kale erabilera neurtzeko beharrezkoak diren kontu guztiak koordinatzen ditu UEMAk, eta horren kostua ere bere gain hartzen du. Udalei egokitzen zaie beraien udalerrietan kale erabilera neurtzeko behatzaileak aurkitzea. UEMAk behatzaile horiei formazioa eskaintzen die, eta ondoren neurtzen da kaleko erabilera. Azkenik, udal bakoitzari dagokion txostena banatzen zaio, eta UEMAk txosten orokorra jasotzen du, herri guztietako datuekin.

4. BESTELAKO ZERBITZUAK:



UEMAko kide diren udalak zerbitzu horiez gain, aukera izaten dute urtean zehar beste hainbat abantailez gozatzeko ere. Mankomunitateak sinatzen dituen hitzarmen edo egiten dituen lankidetzen baitan, UEMAko udalek guztiek batzuetan eta aukeratutakoe beste batzuetan aukera izaten dute azpian zerrendatzen diren antzeko kontuetarako.

- Euskal prentsa sustatzeko: Berria kanpainaren baitan, herritarrek edo tabernariak harpidetzak doan jasotzeko epe batean.
- Unibertsitateekin dugun lankidetzaren baitan EHU edo Deustuko unibertsitateko ikasleren bat praktiketan hartzeko (orain arte euskara teknikariak eta arkitektoak aritu dira).
- Garabiderekin dugun hitzarmenaren baitan, garapenerako dirulaguntzen inguruko lanketa egiteko.
- Udalerri euskaldunen edo arnasmuneen inguruko azterketak egiten direnean, mankomunitateko udalak aukeratzen dira azterketak burutzeko.
- Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean, EKOLINGUA metodoa landu zen eta UEMAko udaletan testatu zen.
- Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan udalerri euskaldunen eta arnasmuneen garrantzia gizarteratzeko kanpaina egingo da. Horretarako webserie bat grabatuko da, eta estreinaldia UEMAko udalerrietan izango da.
- Udalerri Euskaldunen Eguna.
- Udalerri euskaldunei buruzko jardunaldiak, hausnarketa eta soziolinguistika uztartuz.

HARREMANETARAKO

POSTA:

koordinazioa@uema.eus

SARE BIDEAK:

- Webgunea: uema.eus
- Twitter: [@UEMA_eus](https://twitter.com/UEMA_eus)
- Facebook: [UEMAeuskaraz](https://www.facebook.com/UEMAeuskaraz)
- Telegram: t.me/UEMAeus
- Youtube: [UEMAeuskaraz](https://www.youtube.com/UEMAeuskaraz)
- Issuu: [uema_eus](https://www.issuu.com/uema_eus)

UEMA:

Donibane enparantza 1, 1a
48380 AULESTI

Bizkaia
94 6279195

Enparatza nagusia 11
Azoka Plaza (6. bulegoa)

20730 AZPEITIA
Gipuzkoa
943 816699

Aialde kalea, 2
20180 OIARTZUN
Gipuzkoa
943 260372



uema.eus



eurkara z gara!

URTARRILA

Al	Ar	Az	Og	Os	Lr	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Donibane enparantza 1, 1a
48380 AULESTI
Bizkaia
94 6279195

Enparatza Nagusia 11
Azoka Plaza (6. bulegoa)
20730 AZPEITIA
Gipuzkoa
943 816699

Aialde kalea, 2
20180 OIARTZUN
Gipuzkoa
943 260372